

HTC HD2



Instalazio
Eskuliburu
Azkarra
htc

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburu



Mesedez, irakur ezazu hau jarraitu aurretik

CUANDO GAILUA KAXATIK ATERATZEN DUZUNEAN, EGIAZTATU BATERIA EZ DAGOELA KARGATUTA.

EZ KENDU BATERIA-PAKETE A GAILUA KARGATZEN ARI DELA.

BERMEA BALIORIK GABE GERATUKO DA, GAILUAREN KANPOKO KARKASA IREKITZDEN EDO MANEIAZTEN BADUZU.

PRIBATUTASUNAREN MUGAK

Herrialde batzuetan, telefono bidezko elkarrizketa guztiak agertu behar dira, eta, erabakita dagoenez, hitz egiten ari den pertsonari jakinarazi behar zaio elkarrizketa grabatzen ari direla. Kasu egin zure herrialdean indarrean dauden legeei eta erregulazioei, zure PDA telefonoaren grabatzeko-ezaugarria erabiltzen duzunean.

Kalteak mugatzea

LEGERIAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, HTC-K ETA HAREN HORNITZAILEEK EZ DUTE INOLAZ ERE BERE GAIN ERANTZUKIZUNIK HARTUKO, ERABILTZAILEAK EDO HIRUGARRENEK ZEHARKAKO KALTEA, KALTE BEREZIA, ZERBAITEN ONDORIOZKOA, OHARKABEKOA EDO ZIGORGARRIA ERAGITEN BADUTE (KONTRATUAN EDO KONTRATUTIK KANPO ZEHAZTUTA); KALTEEZ BESTALDE, EZ DIRA EGOERA HAUEN ERANTZULE IZANGO: DIRU-GALERA, ONDASUN-GALERA, AUKERA KOMERTZIALEN GALERA, DATU-GALERA ETA/EDO MOZKIN-GALERA (ENTREGATZEA, EGINBEHARRAK EZ BETETZEA EDO, AURREIKUSPENAK AURREIKUSPEN, HEMEN ZEHAZTUTAKOAREN ARABERA METEOROLOGIA-INFORMAZIOREN, DATUEN ETA AGIRIEN ERABILERAREKIN NOLABAIT LOTUTA EGON DAITEZKE EDO HORIEN ONDORIO IZAN.

*** ABISU GARRANTZITSUA ***

Telefonoaren aplikazio batzuk ibiltzeko, etengabe Internetera konektatuta egon behar duzu. Gomendagarria da datuen tarifa finko bat kontratatzea. Datuen tarifa finkorik ez baduzu, baliteke tarifa oso altua kobratzea telefonoaren bidez Internetera konektatzen zarenean. Arren gomendatzen dizugu telefonia mugikorreko operadoreari datuen tarifak galdetzeko, Internet erabiltzen duten telefonoko aplikazioak erabili aurretik.

Edukia


1. Paketearen barrua	4
2. Telefonoa ezagutzea	4
3. Telefonoa piztu aurretik.....	5
4. Lehen urratsak	7
5. Hasierako pantaila	8
6. Pantaila blokeatzea	8
7. Telefonoan kontaktuak sartzea	9
8. Ezagutu HTC Sense	11
9. Konektatu Internetera	20
10. Zure mezuak bidaltzea.....	22
11. Kamera erabiltzea	25
12. Argazkiak eta bideoak konpartitzea Facebook, Twitter eta YouTube erabilia.....	27
13. Telefonoaren haririk gabeko kontrolak kudeatzea.....	30
14. Ordenagailuarekin sinkronizatzea	31
15. Telefonoaren leheneratzea	32
16. Arazoak konpontzeko iradokizunak	33
Eranskina: Segurtasuna eta beste ohar batzuk.....	35

1. Paketearen barrua

- HTC HD2 bateriarekin
- USB sinkronizazio-kablea
- Korrante altxatzen egokigailua
- Elektrizitate entxufeak
- Entzungailu estereoa, 3,5 mm-koa
- MicroSD txartela
- Kutxatila
- Instalazio eskuliburu azkarra

2. Telefonoa ezagutzea

Aurreko panelean agertzen diren aukerak hauek dira:




Bolumena doitzeko SUBIR VOLUMEN eta BAJAR VOLUMEN botoiak telefonoaren ezkerreko aldean daude.

Goiko aldeko audioaren larakoan 3,5 mm-ko entzungailu estereoa konekta dezakezu (telefonoarekin batera datorrena). Beheko aldean sinkronizaziorako konektore bat dago

telefonoaren bateria kargatzeko edo telefonoa ordenagailura konektatzeko.

3. Telefonoa piztu aurretik




Atzeko tapa kentzea

1. Eutsi telefonoari modu Seguruan, aurreko alde beherantz begira dagoela.
2. Hatz lodia edo beste hatz bat erabili atzeko tapa altxatzeko, taparen ezkerretik hasita.



Geruza mehea eta bateria kentzea

1. Tiratu geruza mehearen goiko Puntatik batera, geruzarekin batera, telefonotik kentzeko.
2. Atera geruza eta zaramara bota.
3. Kendu bateria.




SIM txartela berriz jartzea

1. Sartu SIM txartela urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela eta moztutako ertza zirrikituaren kanpoalderantz dagoela.
2. Lerratu erabat SIM txartela zirrikituan.

6 Instalazio eskuliburu azkarra


4



Sartu berriro bateria

1. Parez pare jarri bateriaren kanpoko kobrezko kontaktuak eta bateriaren kokalekuko konektoreak.
2. Sartu lehenik bateriaren kontaktuen aldea, eta, ondoren, jarri kontuz dagokion tokian.


5



MicroSD txartela sartzea

Sartu microSD txartela dagokion zirrikitan, urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela, bere lekuan sartuta gelditu arte..


6



Atzeko tapa berriro bere lekuan jartzea

Lehendabizi, jarri atzeko taparen eskuinaldea eta bultzatu tapa bere lekuan geratu arte.

7



Bateria kargatzea

1. Konektatu entxufea korrante egokigailura.
2. Akoplatu korrontearen egokigailuko USB konektorea zure telefonoko sinkronizazio-konektoreari.
3. Konektatu USB konektorearen beste muturra egokigailuaren USB portura.
4. Bateria kargatzen hasteko, konektatu korrontearen egokigailua hartune elektrikora.

SIM txartela, bateria eta microSD txartela instalatu eta bateria kargatutakoan, telefonoa pitz dezakezu lehen aldiz. Jarraitu irakurtzen, eta zure telefonoarekin zer egin dezakezun jakingo duzu.

4. Lehen urratsak



Sakatu **APAGAR/ENCENDER** botoia, telefonoa pizteko.

Telefonoa lehenengo aldiz pizten duzunean:

- SIM txartela sartu ez baduzu eta telefonoa lehen aldiz piztu baduzu, zure telefonoak SIM txartela eta bateria nola instalatu azaltzen duen tutoriala erakutsiko dizu. Telefonoa itzala, SIM txartela sartu eta bateria berriz sartu telefonoa erabiltzen hasi aurretik.
- Zure telefonoak automatikoki instalatzen ditu GPRS/3G, MMS eta WAP konexioak SIM txarteleko datuak kontuan hartuta.
- Pantailako teklatura nola erabili azaltzen duen tutoretza bat agertuko da. Jarraitu pantailako teklatura erabiltzen ikasteko tutoretzaren urratsei.
- Argibideak ikusiko dituzu telefonoa WiFi sare batera konektatzeko (baldin badago), posta elektronikoko kontuak, Facebook®, YouTube™ eta Twitter™ bezalako sare sozial gogokoenak konfiguratzeko. Jarraitu pantailako argibideei konfigurazioa osatzeko eta saioa hasteko, edo, bestela, utzi konfigurazioa beste une baterako.
- Zure telefonoko aplikazio batzuk —hala nola Tiempo eta Footprints— erabiltzeko, nahitaezkoa da Google-ren kokapen-zerbitzuak automatikoki uneko kokapena zehaztea. Hauta dezakezu aukera emango duzun edo ez Google-ren kokapen-zerbitzuak zure kokapenari buruzko informazioa bil dezan.
- Zure telefonoa automatikoki saiatuko da ordu-eremua detektatzen eta ordua zehazten. Automatikoki detektatzen ez bada, doitu uneko ordua.
- Telefonoak PCrako sinkronizazio softwarea jaisteko webgunearen helbidea erakusten duenean, helbidea idatzi deskargatu eta ordenagailuan instalatzeko.


5. Hasierako pantaila



Sakatu pantailaren goialdeko ezkerrean dagoen **Inicio** () ikonoan edo sakatu telefonoko INICIO () botoia Hasierako pantaila irekitzeko. **Inicio** pantailatik telefonoaren ezaugarri eta programa garrantzitsuetara sar zaitezke.

6. Pantaila blokeatzea

Telefonoa blokeatzen denean, pantaila-babesa bistaritzen da. Ukipen-pantailako botoi edo elementuren bat nahi gabe ez sakatzeko da pantaila-babesa.

Zure telefonoa automatikoki blokeatzen da pantaila itzaltzen denean (automatikoki, edo APAGAR/ENCENDER botoia sakatzean), eta modu etena aktibatzen da. Pantaila-babesa ikusten duzunean, lerratu Bloquear botoia () ezkerrean edo eskuinera, telefonoa blokeatzeko.




Pantaila-babesari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburuko “Lehen urratsak” kapitulua.

7. Telefonoan kontaktuak sartzea

Telefonoan kontaktuak sartzeko era bat baino gehiago daude.

Kontaktu berriak sortzea

Kontaktu berriak sor ditzakezu telefono zenbakia, posta elektronikoko helbidea eta beste informazio batzuk telefonoan idatzita.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Contactos** fitxara, sakatu **Contactos**, eta, ondoren, sakatu **Nuevo**.
2. Kontaktuari argazki bat eransteko, sakatu **Foto del contacto** ikonoa () **Nueva tarjeta de contacto** pantailaren goialdeko eskuinaldean. Hautatu Facebook-eko argazkia erabiliko duzun, **Álbumes** ataletik aukeratuko duzun edo kamera erabilita argazki bat aterako duzun.
3. Idatzi kontaktuari buruzko informazioa horretarako eskaintzen diren eremuetan. Kontaktuari txirrin-tonu bat ere eslei dakiok.
4. Bukatzean, sakatu **Listo**.

Iradokizuna **Nueva tarjeta de contacto** pantailan, joan pantailaren behealdera eta sakatu **Más** kontaktuari buruzko informazio gehigarria idazteko.

Outlook-eko kontaktuak sinkronizatzea

Ordenagailuan edo Exchange Server-en (Outlook-eko lan-kontua) Outlook-eko kontaktuak badituzu, telefonoarekin sinkroniza ditzakezu. Telefonoa ordenagailuarekin sinkronizatzeke moduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus eskuliburu honetako “Ordenagailuarekin sinkronizatzea” kapitulua. Ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburua, telefonoa Exchange Server-ekin sinkronizatzeke moduari buruzko informazioa nahi izanez gero.

Microsoft® My Phone-rekin sinkronizatzea

Informazioa zure telefonoaren eta pasahitzaz babesturiko Microsoften webgune baten artean sinkronizatzen du Microsoft® My Phone-k. Segurtasun-kopia egin dezakezu, eta kontaktuak, egutegiko hitzorduak, argazkiak eta beste zenbait informazio leheneratu. Xehetasun gehiago eskuratzeko, ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburua.

8. Ezagutu HTC Sense

HTC HD2 da HTC Sense™ eskaintzen duen Windows Mobile® lehen telefonoa; funtsezko hiru printzipiotan oinarritzen den esperientzia: sortu zure Hero-a, hurbildu lagunengana eta ezustekoa aurkitu.


Sortu zure Hero-a

Pertsonalizatutako pantaila nagusia Oraingo kokalekuko ordua eta eguraldia ikusi pantaila nagusiko denbora erlojuan.

Pantaila nagusian hurrengo hitzordua ere azaltzen da. Sakatu nahi duzun elementuan denbora erlojuan beste kokapen bat agertzeko, denborari buruzko informazioa eguneratzeko edo **Calendario** aukerara sartzeko.



Pantaila nagusitik erraz sar zaitezke normalean erabiltzen dituzun oinarritzko funtzioetara (**Contactos, Mensajes, Correo, Internet**, etab.). Pantaila nagusiko behealdean dauden fitxak telefonoaren funtzio ezberdinekin lotuta daude. Sakatu segundo batzuez fitxa aktiboa, eta, ondoren, mugitu hatza eskuinera edo ezkerrera, nahi duzun fitxara heldu arte. Zuzenean fitxa batean ere uki dezakezu.



Pantaila nagusia irudi batekin edo animazio batekin egindako hondoko paperarekin pertsonalizatu dezakezu (sakatu **Menú > Papel tapiz de inicio**), fitxak berrantolatu eta gehien inporta zaizkizun pertsonenganako, webgune gogokoenetara eta aplikazioetara lasterbideak gehitu ditzakezu.

Hurbildu lagunengana

Pertsonak dute garrantzia

Gogokoen dituzun pertsonengandik hurbil egotea: hori da zure telefonoaren helburua.


Pantaila nagusiko **Contactos** fitxan zuzenean jarri ezazu harreman handiena duzun jendea. Horrela, nahikoa izango da kontaktu baten argazki gainean sakatzea kontaktu horri deitzeko edo mezu bat bidaltzeko idatzi.




Zure telefonoak testu eta multimedia mezuak, posta elektronikoak eta kontaktu baten deien erregistroak antolatzen ditu, dena leku bakarrean; horrela begiratu batean pertsona horrekin izandako komunikazio guztiak ikus ditzakezu. Zure telefonoak, gordetako kontaktuen datu pertsonaletan Facebook-eko informazioa ere eskaintzen duenez, zure sare sozialen berri ere ematen dizu. Berehala jakin dezakezu zertan ari diren eta argazki berriak edo beste eguneratzeak eskegi dituztenen. Eta are gehiago, haren urtebetetzeen eta beste gertaera garrantzitsuen berri izango duzu.



Testu mezuak



Posta elektronikoa



Deiak




Facebook-eko eguneraketak eta gertaerak

Kontaktu askotara mezuak bidaltzea errazagoa da. Joan **Grupos** fitxara eta sortu kontaktu talde bat. Gero, erraz bidaliko diozu taldeari testu mezu bat, posta elektronikoa edo multimedia mezua hartzaileak banan-banan gehitu barik.

Sare sozialak

Zure telefonotik Twitter-er gozatu.



Telefonoaren bereizmen handiko kamerari esker, argazki bat egin eta zuzenean zure Facebook-eko albumera igo dezakezu. Twitter-en zauden bitartean, argazkiak ere bidali ditzakezu zure tweet mezuekin batera. Gainera, bideo bat grabatu eta YouTube-n konpartitu dezakezu. Informazio gehiago behar baduzu, ikusi “Compartir fotos y vídeos en Facebook, Twitter y YouTube” eskuliburu honetan.

Ustekabeakoaz ohartu zaitez

Markatze adimentsua Telefono honekin testu, multimedia edo posta elektronikoko mezu bat irakurtzea edo igorleari deitzea lan azkarrak eta errazak dira (haren zenbakia kontaktuetan gordeta baldin badago). Mezua ikusten duzun bitartean, sakatu **HABLAR/ENVIAR** botoia igorleari deitzeko.



Pantailako teklatura

Testua idazteko, teklatuaren hiru diseinu dituzu aukeran:


QWERTY completo,
QWERTY compacto eta
Teclado del teléfono.

Pantailako teklatuak aukerako hitzen eta autozuzenketaren funtzioak ditu; azkarrago eta zehaztasun handiagoz idazten lagunduko dizute funtzio horiek. Ez kezkatu beti letra zuzena sakatzen ez baduzu; saiatu ahalik eta gehien hurbiltzen, eta teklatuak egingo du gainerakoa.



QWERTY completo

Hartzailea mezuan idazten duzunean, izenaren lehen letra baino ez dituzu idatzi behar. Gordetako kontaktuetatik bat datozen izenak agertuko dira. Sakatu mezu bidali nahi diozunaren posta elektronikoko helbidean edo hartzailearen zenbakian.



Entretenimendu multimedia eta Internet pantaila handian

Aparteko eta bereizmen handiko pantailari esker, izugarri gozatuko duzu Webetik nabigatzen duzunean eta multimedia edukiak erreproduzitzen dituzunean.

Web orrialdeak ikustean, zure argazkiak eta bideoak begiratzean edo musika albumetatik mugitzean, telefonoa horizontalean jarri dezakezu ezkererantz ikuspegi horizontala eskuratzeko.



Lerratu atzamarra pantailatik ezkerrean edo eskuinera argazkiak, bideoak edo musika albumak aztertzerakoan modu horizontala.

Sakatu argazki bat, bideo bat edo musika album bat pantailaren erdian irekitzeko.






Sakatu argazkiaren edo bideoaren erdialdean pantaila osoan ikusteko, edo sakatu albumaren erdian album horretako pistak ikusi eta musika entzuten hasteko.

Atximurka egin zoma erabiltzeko

Telefonoaren ukipen pantailak benetako ukipen-kontrola eskaintzeko diseinatuta dago. Web orrialdeak, argazkiak, mezuak edo dokumentuak ikusterakoan, hurbildu eta urrundu bi hatz erabilita. Hatz lodia eta erakuslea erabilita, sakatu pantailan eta hatzak banatu urruntzeko. Hatzak bat eginda sakatu irudia hurbiltzeko.




Hurbildu




Urrundu

Pantailan dauden kontrolak eta ikonoak txikiak eta sakatzeko zailak diren zenbat tokitan, atximurka egin dezakezu hurbiltzeko eta urruntzeko zoma egiteko. Hurbildu ondoren, pantailako ikonoa eta kontrola handiagotu egiten dira eta erraz sakatuko duzu atzamarrarekin. Aurrebistarako pantaila

txiki bat ikusiko duzu, eta leihoaren gainetik atzamarra lerratu dezakezu handitu duzun pantailaren ikuspegi panoramikoak lortzeko.



Pantaila arrunta



Pantaila handituta

HTC Footprints

Erabili ezazu HTC Footprints™ bizitzako kontaktak grabatzeko. Zoazen lekura zoazela, bisitatu dituzun tokien argazkiak egin eta GPS kokapena beste datuekin batera telefonoan gorde dezakezu. Pantaila nagusiko Footprints fitxatik, argazkiak erraz ikus daitezke eta zure leku gogokoenak berriz aurkituko dituzu.

Footprints-en erabilerari buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikusi "Encontrar y grabar lugares" PDFan dagoen erabiltzailearen eskuliburuan.



Erraza eta intuitiboa

HTC HD2-aren ezaugarri batzuei dagokienez, hobe da hauek probatzea azaltzea baino. Telefonoak deia hartu dela igartzen duenean, txirrinaren doinua apaltzen den bezalaxe, edo inguruko argiari automatikoki doitu eta, dei baten bitartean, nahi barik ez ukitzeko, itzaltzen den pantaila bezalaxe. Trebatzeko ukimen esperientzia horrek pantaila zabalari egokituta dagoen interfazearekin batera konfigurazioa erraz doitzea ahalbideratzen du: egutegiko hitzorduak konfiguratzea, argazkiak aztertu eta menuetatik mugitzea atzamarrarekin ukitzearekin batera.

9. Konektatu Internetera

Konektatu munduarekin datu-konexio edo WiFi konexio baten bidez. Arakatu Web, Windows® Marketplace gunetik aplikazioak deskargatu eta bidali/jaso posta elektronikoa.

Datu konexioa erabiltzea

Internetera sartzeko funtzio bat —hala nola posta elektronikoa eta web-arakatzaillea— erabiltzen hasten zarenean, zure telefonoa automatikoki konektatuko da Internetera 3Gren/GPRSaren/EDGEren bidez.

Bateria aurrezteko, datu-konexioa ken dezakezu erabiltzen ari ez zarenean. Pantaila nagusian, joan **Configuración** fitxara eta sakatu **Controles inalámbricos**, eta, ondoren, ukitu **Conexión de datos** aukerako **ACTIVAR/DESACTIVAR** kontrol lerragarria.


WiFi erabiltzea


Telefonoa lehen aldiz piztean WiFi konfiguratu ez bazenuen, jarraitu zure telefonoa WiFi batera konektatzeko hemen ematen diren urratsei.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Controles inalámbricos**.
2. Ukitu Wi-Fi. Detektatutako haririk gabeko sareak bistaratuko dira pantailan.
3. Ukitu zuk nahi duzun WiFi sarea.
 - Sare ireki bat (ez-segurua) hautatzen baduzu, automatikoki konektatuko da sarera.
 - Sare seguru bat hautatzen baduzu, segurtasun-gakoa sartu behar duzu eta, ondoren, **Listo** ukitu. Orduan, sarera konektatuko da.

Weba arakatzea

Gozatu esperientzia aberats batez Internet Opera Mobile™-rekin arakatzuz. Pantaila nagusian, zoaz **Internet** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Iniciar esplorador**, Opera Mobile abiarazteko.

Opera Mobilek bistaratzeko bi modu ditu: pantaila osoa eta arrunta. Pantaila osoko moduan, ezkutatu egiten dira helbide-barra eta arakatzailaren kontrolak. Pantaila osoko menutik modu arruntera aldatzeko, ukitu **Restaurar** () ikonoa (arakatzailearen pantailan dago, beheko eskuineko ertzean).




Web-orriak pantaila osoan bistaratzeko, ukipen-pantaila hatz lodiarekin eta erakuslearekin ukitu, eta biak banatuz irudia hurbildu. Atzamar biak batera sakatu irudia urruntzeko.

10. Zure mezuak bidaltzea

Egon harremanetan zure bizitzako pertsona garrantzitsuenekin.


Testu-mezuak bidaltzea


Bidali mezu laburrak (SMS) beste telefono mugikor batzuei. Gehieneko karaktere kopurua baino gehiago baditu, mezu bakar gisa bidaliko da, baina mezu bat baino gehiago kobratuko zaizkizu.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Mensajes** fitxara, eta, ondoren, ukitu **Nuevo mensaje** () ikonoa, pantailaren goialdeko eskuinean.
2. **Para** eremuan, idatzi hartzailearen telefono mugikorreko zenbakia. Hartzailearen izenaren lehen letrak idatzi ditzakezu gordetako kontaktuetatik bat datozenen zerrenda bat ikusteko, eta jarraian ukitu mezua bidali nahi diozun hartzailearen telefono mugikorraren zenbakia.
3. Ukitu **“Puntear para redactar texto”** izena duen laukian, eta mezua idazten hasi.
4. Mezua idazten amaitzen duzunean, ukitu **Enviar**.

Multimedia mezuak bidaltzea

Bidali argazkiak, bideoak eta audio-klipak dituzten multimedia-mezuak (MMS).

1. Pantaila nagusian, zoaz **Mensajes** fitxara, eta, ondoren, ukitu **Nuevo mensaje** () ikonoa, pantailaren goialdeko eskuinean.

2. **Para** eremuan, idatzi hartzailearen telefono mugikorreko zenbakia eta posta elektronikoko helbidea. Hartzailearen izenaren lehen letrak idatzi ditzakezu gordetako kontaktuetatik bat datozenen zerrenda bat ikusteko, eta jarraian ukitu mezua bidali nahi diozun hartzailearen telefono mugikorraren zenbakia edo posta elektronikoa.
3. Ukitu **Adjuntar** () botoia eta jarraian hautatu mezuan txertatu nahi duzuna: argazkia, bideoa, audioa, kontaktuaren datuak, egutegiko hitzordua edo diapositiben aurkezpena.
4. Mezua idazten amaitzen duzunean, ukitu **Enviar**.

Posta elektronikoa konfiguratzea eta erabiltzea

Konfiguratu posta elektronikoko kontuak —pertsonalak nahiz lanekoak— zure telefonoan (ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburua, Outlook-eko lan-kontua konfiguratzeke moduari buruzko informazioa nahi izanez gero)


Interneteko posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeke

1. Pantaila nagusian, zoaz **Correo** fitxara.
2. Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzen duzun lehen aldia bada, ukitu **Agregar cuenta**. Bestela, ukitu **Menú > Agregar cuenta**.
3. Hautatu posta elektronikoko hornitzaile bat. Posta elektronikoko zure hornitzailea zerrendan ez badago, ukitu **Otros**.
4. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, ukitu **Siguiente**.
5. Adierazi zure izena eta bistaratzeko kontuaren izena, eta, azkenik, ukitu **Siguiente**.

Oharra Konfiguratu nahi duzun posta elektronikoko kontua telefonoaren datu-basean ez badago, xehetasun gehiago — hala nola sarrerako eta irteerako mezuen zerbitzarien konfigurazioa— emateko eskatuko dizute hurrengo pantailak. Eskatu zerbitzu-hornitzaileari doikuntza horiek egiteko.

6. Aukeratu telefonoak zer maiztasunekin bidali eta jasoko dituen automatikoki mezu elektronikoa.
7. Sakatu **Listo**.

Mezu elektronikoa bidaltzeko

1. Pantaila nagusian, zoaz Correo fitxara, eta, pantailaren eskuinaldean, ukitu erabili nahi duzun posta elektronikoko kontua.
2. Sakatu **Nuevo correo** () mezu elektronikoa berri bat sortzeko.
3. Sakatu **Para** eta hautatu kontaktu bat, edo hautatu posta-talde bat.


Para eremuan, Hartzailearen izenaren lehen letrak idatzi ditzakezu gordetako kontaktuetatik bat datozenen zerrenda bat ikusteko, eta jarraian ukitu mezua bidali nahi diozun hartzailearen posta elektronikoa.


4. Idatzi gaia eta mezua, eta, ondoren, ukitu **Enviar**.

11. Kamera erabiltzea

Plazera edo negoziotengatik bidaiatzen baduzu, gozatu zure bidaiaren eta elkartzeen argazkiak egiten eta bideoak grabatzen telefonoak eskaintzen dizun 5 megapixeiko kamerarekin.

Argazki bat ateratzea

1. Pantaila nagusian, zoaz **Fotos y vídeos** fitxara, eta, ondoren, ukitu **Cámara** ikonoa ().
2. Utzi kamerari automatikoki fokatzeko bisorearen pantailaren erdialdean dagoen pertsona, edo zeuk aukeratu fokatu behar den edozein inguru pantailaren bisoreko nahi duzun tokian sakatuta.



Fokatze automatikoa



Ukipen-fokatzea

Oharra Fokatze guneak kanpo sakatzen baduzu, lauki zuri bat agertuko da ukipen-fokatzea non erabili adieraziz.

3. Sakatu **Cámara virtual** () botoia segidan egiteko argazkia, edo **Cámara virtual** segundo batzuk sakatuta izan berriz fokatzeko eta argazkia ateratzeko.

Bideoa grabatzea

1. Pantaila nagusian, zoaz **Fotos y vídeos** fitxara, eta, ondoren, ukitu **Videocámara** ikonoa ().
2. Kamerarekin pertsona apuntatu.
3. Sakatu **Cámara virtual** () botoia segidan grabatzeko bideoa, edo **Cámara virtual** segundo batzuk sakatuta izan eta gero hasi grabatzen.
4. Bideoaren grabazioa gelditzeko, sakatu **Cámara virtual** botoia.

Kameraren erabilerari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, ikus “Cámara y Multimedia” PDFan duzun Erabiltzaile eskuliburuan.

12. Argazkiak eta bideoak partekatu

Facebook-en, Twitter-en eta YouTube-n

Zure telefonotik zuzenean, erraz partekatuko dituzu argazkiak Facebook eta Twitter-en. Bideoak ere igo ditzakezu YouTube-ra.


Zure sare sozialetan saioa hastea

Telefonoa lehen aldiz piztu duzunean sare sozialetan duzun kontuen konfigurazioa ez baduzu bete, argazkiak eta bideoak igo eta partekatu aurretik saioa hasi beharko duzu.

1. Pantaila nagusian joan **Configuración** fitxara eta gero sakatu **Servicios de datos**.
2. Hasi saioa Facebook, YouTube eta Twitter-en. Ukitu sare bakoitzaren eskuinaldean agertzen den **Desactivado/activado** kontrol lerragarrian. Hurrengo pantailan, idatzi zure erabiltzaile izena eta pasahitza eta gero sakatu **Iniciar sesión**.

Argazkiak Facebook-en kargatzea

Zure telefonoko kamerarekin argazki bat atera ondoren, Facebook-era igo dezakezu. Erabili **Álbumes** argazki bat baino gehiago batera kargatu nahi dituzunean.

1. Kamera ireki eta atera argazki bat. Argibideetarako ikus gida honetako “Kamera erabiltzea”.
2. Argazkia atera ondoren, sakatu **Enviar** (), hautatu **Cargar en Facebook**, eta gero sakatu **Enviar**.
3. Argazkiak partekatzeko, joan pantaila nagusiko **Fotos y vídeos** fitxara, eta jarraian sakatu **Álbumes** pantailaren behealdeko ezkerrean. **Álbumes** aukeran, sakatu **Menú > Compartir > Facebook**, markatu partekatu nahi dituzun argazkia guztiak eta gero sakatu **Cargar**.

Bukatzen denean, erabili web nabigatzailea Facebook-en saioa hasteko eta igo dituzun argazkiak konprobatzeko eta ikusteko. Hasierako orri nagusian ikusiko dituzu. “Cargas móviles” izeneko albumean ere aurkituko dituzu.

Argazkiak Twitter-en kargatzea


Twitter-en argazkiak banan-banan kargatu behar dira. Lehenengo sortu tweet berri bat, eta gero hautatu argazki bat edo erabili kamera argazkia ateratzeko. Zure telefonoak argazkien ostatu zerbitzu baten kargatzen du argazkia eta gero URL helbidea txertatzen du tweet-ean.

1. Pantaila nagusian, joan **Twitter** fitxara.
2. Sakatu **Menú > Nuevo tweet**. Tweet-a sortu nahi baduzu, idatzi agertzen den laukian.
3. Skatu **Cámara** ().
4. Hurrengo pantailan nahi duzun argazkia agertzen ez bada, sakatu lehendabizi **Álbumes** eta hautatu partekatu nahi duzun argazkia duena.
5. Nahi duzun argazkia ikusten duzunean, ukitu argazkia aukeratzeko. Pantailaren ezker aldean dagoen **Cámara** ikonoa () ere sakatu dezakezu kamera erabiltzeko eta argazki bat ateratzeko.
6. Jarraian, zure telefonoa argazkia Twitter-en kargatzen hasiko da. Behin karga bukatuta, argazkiaren URL helbidea segidan txertatzen da zure tweet mezuan.
7. Sakatu **Actualizar** tweet-a argazkiaren URLarekin batera bidaltzeko eta beste pertsona batzuek Twitter-en ikus dezaten.

Pantaila nagusiko Twitter fitxara bueltatzen bazara eta **Todos los tweets** sakatzen baduzu, partekatu duzun argazkiaren URLa duen tweet-a ikusiko duzu.

Bideoak YouTube-n kargatzea

Bideo grabatzeko **Cámara** erabili dezakezu eta jarraian YouTube-n partekatu. Erabili ezazu **Álbumes** bideo bat baino gehiago batera kargatu nahi duzunean.

1. Kamera ireki eta bideo bat grabatu.
Argibideetarako ikus eskuliburu honetako “Kamera erabiltzea”.
2. Bideoa grabatu ondoren, sakatu **Enviar** (), hautatu **Cargar en YouTube**, eta gero sakatu **Enviar**.
3. **Cargar vídeo** pantailan, idatzi bideorako izenburu deskribatzailea eta etiketak. Halaber, ukitu **Desactivado/ activado** kontrol lerragarrian bideo hau mundu guztiak ikus dezakeen ala ez.
4. Sakatu **Cargar**.

Bideoak partekatzeko, joan pantaila nagusiko **Fotos y vídeos** fitxara, eta jarraian sakatu **Álbumes** pantailaren behealdeko ezkerrean. **Álbumes** aukeran, sakatu **Menú > Compartir > YouTube**, markatu partekatu nahi dituzun bideo guztiak, sakatu **Siguiente**, eta gero jarraitu 3. eta 4. pausuak bideoak YouTube-n kargatzeko.

Bukatzen denean, erabili web nabigatzailea YouTube-n saioa hasteko eta igo dituzun bideoak konprobatzeko eta ikusteko. Zure kontuko historia ataleko “Video cargados” izeneko albumean ere aurkituko dituzu.

13. Zure telefonoaren haririk gabeko kontrolak kudeatzea

Comm Manager-ekin gailuaren haririk gabeko ezaugarriak erraz aktibatu eta desaktibatu ditzakezu; WiFi-a, Bluetooth-a, datu-konexioa, etab. Pantaila nagusian, joan **Configuración** fitxara eta sakatu **Controles inalámbricos** aukera **Comm Manager** irekitzeko.

Comm Manager pantailan, sakatu ezkerrean zerrendatutako doikuntzak konfiguratzeko. Sakatu **Desactivado/activado** kontrol lerragarria eskuinerantz funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.



Comm Manager-en erabilerari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, ikus “Administrar su teléfono” PDFan duzun Erabiltzailearen eskuliburuan.

Iradokizuna Comm Manager-eko **Enrutador Wi-Fi** aukerarekin, telefonoa haririk gabeko router bat balitz bezala egingo du lan eta ordenagailua Internetera konekta dezakezu telefonoaren datu-konexioa erabilia. Informazio gehiago behar baduzu, ikus “Internet y Redes sociales” PDFan duzun Erabiltzailearen eskuliburuan.

14. Ordenagailuarekin sinkronizatzea

Zure ordenagailuko informazioa telefonoarekin sinkronizatuz gero, zauden lekuan zaudela ere eskuratu egin ahal izango duzu informazioa.

Microsoft ActiveSync (Windows XPrako) edo Windows Mobile-ko gailu-zentroa (Windows Vistarako) zure ordenagailuan deskargatu eta instalatzeko, zoaz webgune honetara:

<http://www.windowsmobile.com/getstarted>

ActiveSync konfiguratzeko

1. Konektatu telefonoa ordenagailuari. Sinkronizazioa konfiguratzeko laguntzailea automatikoki abiaraziko da. Segitzeko, sakatu **Siguiente**.
2. Telefonoa ordenagailuarekin sinkronizatzeko, desmarkatu **Sincronice directamente con un servidor que ejecute Microsoft Exchange** laukia eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
3. Hautatu sinkronizatu nahi dituzun informazio-motak, eta sakatu **Siguiente**.
4. Hautatu edo desautatu **Permitir conexiones de datos inalámbricas** egiaztatze-laukia, nahi bezala.
5. Sakatu **Finalizar**.


Windows Mobile-ren gailuen Zentroa konfiguratzeko

1. Konektatu telefonoa ordenagailuari. Windows Mobile-ren gailuen Zentroa konfiguratu eta ireki egiten da.
2. Lizentzia-hitzarmenaren pantailan, klikatu **Aceptar**.
3. Windows Mobile-ren gailuen Zentroan, sakatu **Configurar el dispositivo**.
4. Hautatu sinkronizatu nahi dituzun elementuak, eta sakatu **Siguiente**.
5. Idatzi telefonoaren izena eta klikatu **Configurar**.

15. Telefonoaren leheneratzea

Berrezarri zure gailuaren softwarea, programa aktibo guztien memoria ezabatzeko eta programa guztiak ixteko. Hori erabilgarria izan daiteke telefonoa ohi baino geldoago badabil edo programa batek ez badu ongi funtzionatzen.

1. Ireki atzeko tapa hatz lodiarekin ezkerraldeetik altxatuta.
2. **RESTABLECER** botoia behealdeko ezkerraldean dago, bateriaren eta SIM txartelaren zirrikituaren azpian. Erabili puntadun objektu txiki bat RESTABLECER botoia sakatzeko.



Zure telefonoa berrezarri egingo da, eta pantaila nagusia erakutsiko du.

3. Atzeko tapa berriz jartzeko, honen eskuinaldea sartu eta gero tapa sakatu finko gertatu arte.

Oharra Ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburuko “Administrar su teléfono” kapitulua, hardwarea berrezartzeko edo lekua ezabatzeko moduari buruzko argibideak behar badituzu. Kontuan izan ekintza horietakoren bat egin ondoren datu guztiak ezabatuko direla eta telefonoak aurrez zehaztutako balioak (fabrikan ezarritakoak) hartuko dituela berriro. Ziurtatu instalatutako programa osagarri, datu eta fitxategi guztien segurtasun-kopiak egin dituzula ekintza horietakoren bat egin aurretik.

16. Arazoak konpontzeko iradokizunak

Hona hemen arazoak konpontzeko oinarrizko iradokizunen zerrenda bat eta zure telefonoa hobeto ezagutzen lagunduko dizun informazio osagarria.

P. Zer egin behar dut telefonoa blokeatu egiten bazait edo makal ibiltzen bada?

- Probatu berrabiarazten edo telefonoaren memoria libre uzten.
- Probatu telefonoko plugin osagarriak desinstalatzeko, ezegonkortasun funtzionalen bat sor baitezakete.
- Zure datuen eta fitxategien segurtasun-kopia bat egin ondoren, joan **Configuración** fitxara eta sakatu **Seguridad > Restablecimiento de fábrica**, eta jarraitu pantailako argibideei telefonoan aurrez zehaztutako balioak (fabrikakoak) berrezartzeko. Telefonoa blokeatuta geratu bada eta Windows Mobile-n sartu ezin baduzu, berrezarri hardwarea. Hardwarea berrezartzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus PDFko erabiltzailearen eskuliburuko “Zure telefonoa administratzea” kapitulua.

P. Badirudi telefonoaren itzarote-denbora gutxitzen ari dela.

- Itzarote-denbora aldatu egin daiteke telefonoa erabiltzeko moduaren arabera. Telefonoa piztearen eta haririk gabeko funtzioak —hala nola Bluetootha eta WiFi— erabiltzearen ondorioz, azkarrago gastatzen da bateria.
- Iraupen luzeko deien, kamera erabiltzearen, Internetera konektatzearen eta beste funtzio batzuk erabiltzearen ondorioz, bateria azkarrago gastatzen da.

- Iraupen luzeko deien, kamera erabiltzearen, Internetera konektatzearen eta beste funtzio batzuk erabiltzearen ondorioz, bateria azkarrago gastatzen da.
- Informazio gehiago eskuratzeko, HTCren laguntzeko webgunera sar zaitezke. Laguntzeko webgunean, hautatu zure telefonoaren modeloa, eta ikus “Preguntas más frecuentes”.

P. Telefonoa berotu egiten da bateria kargatzean edo iraupen luzeko deiak egitean.

- Normala da kargatzen ari zaren bitartean telefonoa berotzea. Kargatzen amaitutakoan, ohiko tenperatura hartzen du berriro.
- Normala da telefonoa berotzea funtzio bera denbora luzean egiten duzunean; adibidez, iraupen luzeko deiak egitean eta bideo-klip luze bat grabatzean.
- Ziur egon zaitezke: HTC telefono guztiak probatu egiten dira fabrikatik atera aurretik.

Eranskina: Segurtasuna eta beste ohar batzuk

Erantzukizunik eza

EGURALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA, BESTE DATU BATZUK ETA DOKUMENTAZIOA “BERE HORRETAN” EMATEN DIRA, HTC-K INOLAKO BERMERIK EDO INOLAKO LAGUNTZA TEKNIKORIK EMAN GABE. INDARREAN DAGOEN LEGERIAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, HTC-K ETA HAREN FILIALEK berriaz baztertzen dute berme esplizitu edo inplizitu oro, lege-eremuan nahiz bestelakoetan, meteorologia-informazioari, datuei zein beste agiri batzuei, eta beste produktu edo zerbitzu batzuei dagokienez. Era berean, ez du onartuko batere komertzializazio-berme inplizitu zein espliziturik; ez du hauetarako berme inplizitu zein espliziturik onartuko: helburu jakin bati egokitzea, urraketarik ez eragitea, kalitatea, zehaztapena, osotasuna, eraginkortasuna, fidagarritasuna, erabilgarritasuna, eta meteorologia-informazioak, datuek eta bestelako agiriak akatsik ez izatea; eta ez du onartuko, azkenik, jardueraren zein horren errendimenduaren ondoriozko berme inpliziturik.

Aipatutakoen kalterik gabe, HTCK eta haren hornitzaileek ez dute beren gain hartzen zuk meteorologia-informazioarekin, datuekin eta/edo agiriarekin egiten duzun erabilerearen edo erabilera okerraren nahiz erabilera horren ondorioen erantzukizunik. HTCK eta haren hornitzaileek ez dute bermerik eskainiko (ez inpliziturik ez espliziturik), ezta hitzarmenik edo baieztapenik eman ere, meteorologia-informazioa iragarpenen, datuen eta eskuratutako informazioaren arabera gertatzeari buruz. Alde horretatik, ez dute inorekin ez inolako entitaterekin betebeharririk edo erantzukizunik beren gain hartuko (horiek parte izan ala ez), gertatu diren edo gertatuko diren eguraldiari eta iragarritako ekitaldiei buruz emandako informazioan funsgabetasunak, zehaztugabetasunak edo hutsegiteak egiten badira. AIPATUTAKOAREN IZAERA OROKORRA IZAKI, ARGI ADIERAZTEN DA METEOROLOGIA-INFORMAZIOA, DATUAK ETA/EDO AGIRIAK ZEHAZTUGABEAK IZAN LITEZKEELA; HALAKOETAN, ZENTZUZ JOKATUKO DA, ETA ESTANDARREI JARRAITUKO ZAIE, INFORMAZIO, DATU ETA DOKUMENTU HORIETAKO INFORMAZIOAREN GAINEKO SEGURTASUN-NEURRIEI DAGOKIENEZ.

Osasunari buruzko informazio garrantzitsua eta segurtasun-neurriak

Produktu hau erabiltzean, segurtasun-neurri hauek hartu behar dira kontuan, ardura eta kalte legalik ez izateko.

Gorde eta kontuan izan produktuaren segurtasun- eta erabilera-argibide guztiak. Produktua erabiltzeko argibideetan dauden abisu guztiak bete.

Kontuan izan ohar hauek kalte pertsonalak sortzeko arriskua, deskarga elektrikoen eta suteen arriskua eta ekipoari kalteak sortzeko arriskua murrizteko.

SEGURTASUN ELEKTRIKOA

Produktu hau eginda dago bateriak edo adierazitako elikatze-iturriak emandako energia erabiltzeko. Bestela erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta produktu honi emandako edozein onarpen baliogabetzen du.

LUR-HARTUNEA ZUZEN KONEKTATZEKO SEGURTASUN-NEURRIAK

OHARRA: ekipoaren lurrerako konexioa behar bezala ez badago, deskarga elektrikoak izan daitezke gailuan.

USB kable bat du produktu honek, mahai gaineko ordenagailu batera edo ordenagailu eramangarri batera konektatzeko. Egiaztatu zure ordenagailua lurrera zuzen konektatuta (jarrita) dagoela produktua ordenagailuan konektatu aurretik. Mahai gaineko ordenagailu baten edo ordenagailu eramangarri baten elikatze-iturriko kableak eramailea eta lurrerako entxufea ditu. Tokiko kodeen eta araudien arabera ongi instalatuta eta lurrera konektatuta dagoen hartune bati konektatu behar zaio entxufea.

ELIKATZE-UNITATERAKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- **Kanpoko elikatze-iturri egokia erabili**
Produktuak sailkapen elektrikoko etiketan adierazitako elikatze-iturri motarekin bakarrik funtzionatu behar du. Ziur ez bazaude zein energia-iturri mota behar den, galdetu zerbitzuen hornitzaile baimenduari edo tokiko konpainia elektrikoari. Bateriarekin eta bestelako iturriekin funtzionatzen duen produktuaren kasuan, kontsultatu produktuarekin batera emandako operazio-argibidea.

• Bateria-paketeak kontuz maneiatu

Gailuak litio-ioizko bateria du. Bateria modu desegokian erabiliz gero, sua eta erredurak izateko arriskua dago. Ez saiatu bateria-paketea irekitzen edo konpontzen. Ez desmuntatu, presionatu, zulatu, kanpoko kontaktuen edo zirkuituen zirkuitulaburra egin, sutara edo uretara bota, ezta bateria 60 °C (140 °F) baino tenperatura handiagoan izan.



OHARRA: eztanda-arriskua egon daiteke bateria ez bada zuzen jartzen. Sua edo erredurak izateko arriskua murrizteko, ez desmuntatu, zapaldu edo zulatu kanpoko kontaktuak edo zirkuituak; halaber, ez eduki 60 °C-tik (140 °F) gorako tenperaturetan, eta ez bota sutara edo uretara. Dagokion bateriarekin ordezkatu. Birziklatu edo bota erabilitako bateriak tokiko arauen arabera, edo produktuarekin batera emandako erreferentziaren gidaren arabera.



• Neurri hauek ere hartu

- Eduki bateria eta gailua toki lehorrean, uretatik eta beste edozein likidotatik urrun, zirkuitulaburrik gerta ez dadin.
- Eduki metalezko objektuak urrun, bateriarekin edo konektoreekin kontaktua sor ez dadin eta funtzionatzen ari dela zirkuitulaburrik gerta ez dadin.
- USB-IF logotipoa duten edo USB-IFekin adostasun-programa osatu duten produktuetara bakarrik konektatu behar da telefona.
- Ez erabili hondatuta edo deformatuta dagoen edo kolorea galdua duen bateriarik, ez eta kanpotik herdoilduta edo gehiegi berotuta dagoenik edo usain txarra duenik ere.
- Ez eduki bateriarik haurtxoen edo ume txikien eskueran, irents ez dezaten. Bateria irentsiz gero, joan berehala medikuarengana.
- Bateriak ihesak baditu:
 - Likidoak ez ditu ukitu behar ez azala ez eta arropa ere. Ukituz gero, garbitu berehala kaltetutako azal-eremua ur garbiarekin eta eskatu laguntza medikuari.

- Likidoak ez ditu begiak ukitu behar. Ukituz gero, EZ igurtzi; garbitu berehala kaltetutako eremua ur garbiarekin, eta eskatu laguntza medikuari.
- Hartu neurri osagarriak bateriaren likidoa sutatik urrun edukitzeko; izan ere, lehertzeko edo sua hartzeko arriskua dago.

EGUZKIAREN ZUZENKO ARGIARI DAGOZKION SEGURTASUN-NEURRIAK

Produktua gehiegizko hezetasunetik eta muturreko tenperaturatik babestu. Ez utzi produktua edo bateria ibilgailu baten barnean edo tenperatura 60 °C (140 °F) baino gehiagokoa izan daitekeen lekuetan, esaterako, autoaren aginte-mahaian, eguzkiaren edo argi ultramore gogorraren eraginpean izan daitekeen tokian, leihoaren edo kristal baten atzean denbora luzez. Horrek produktua kaltetu dezake, bateria gehiegi berotu edo ibilgailuarentzat arriskutsua izan daiteke.

ENTZUMEN-GALERAREN PREBENTZIOA



OHARRA: entzumena gal dezakezu audiofonoak edo entzungailuak denbora luzean ozenegi jartzen badituzu.

OHARRA: Frantzia, gailu honentzako audiofonoak (ondoren adieraziko dira) ebaluatu egin dira presio akustikoaren maila betetzeko, horri buruzko estandarretan azaltzen denez: NF EN 50332-1:2000 eta/edo NF EN 50332-2:2003, Frantziako L. 5232-1 artikulua araberak.

- HTCK egindako audiofonoa, RC E160.

HEGAZKINETAKO SEGURTASUNA

Produktu honek hegazkinaren nabigazio-sistemearekin eta horren komunikazio-sarearekin izan ditzakeen interferentziak direla eta, herrialde askotan, legearen kontrakoa da gailu honen telefono-funtzioa hegazkinean erabiltzea. Gailua hegazkinean zoazela erabili nahi baduzu, itzali telefonoa eta aldatu Hegazkin modura.

INGURUMEN-MURRIZTAPENAK

Ez erabili produktu hau gas-estazioetan, instalazio kimikoetan edo eraisketa-operazioak egiten ari diren lekuetan, ezta ingurune leherkorretan ere (adibidez, horniketa-eremuak, erregai-deposituak, itsasontzi-bizkarren azpialdeak, instalazio kimikoak, produktu kimikoak edo erregaiak lekuz aldatzeko edo biltegiratzeko instalazioak eta airean produktu kimikoak edo partikulak —adibidez, pikorrak, hautsa edo hauts metalikoa— dituzten eremuak). Mesedez, kontuan izan eremu horietan txinpartek eztandak edo suteak eragin ditzaketela, eta horiek lesioak eta heriotza eragin dezakete.

ATMOSFERA LEHERGARRIAK

Atmosfera lehergarria edo material sukoiak dituen eremuan bazaude, produktua itzali egin behar da eta erabiltzaileak seinale eta argibide guztiak jarraitu beharko lituzke. Eremu horietan, txinpartek leherketak edo suteak eragin ditzakete, eta, ondorioz, jendea erre edota hil egin daiteke. Erabiltzaileei gomendatzen zaie ekipoa ez erabiltzeko gasa edo erregaiak hornitzeko estazioak bezalako tokietan, eta gogoratu behar da erregai-gordailuetan, instalazio kimikoetan edo eraisketa-operazioak egiten diren lekuetan irrati-ekipoak erabiltzeari buruzko mugak bete behar direla. Lehergaiak egon daitezkeen guneak gehienetan argi adierazita daude, baina ez beti. Horien artean daude erregaiak hornitzeko eremuak, ontzien estalkiaren azpian, erregaiak edo gai kimikoak transferitzeko edo gordetzeko instalazioetan eta area, hautsa edo metal-hautsa dagoen tokietan.

BIDE-SEGURTASUNA

Ibilgailu-gidariak ezin dituzte eskuko gailuak dituzten telefono-zerbitzuak erabili, larrialdi-kasuan izan ezik. Herrialde batzuetan esku libreko gailuak erabil daitezke ordezko gisa.

IRRATI-MAIZTASUNAREN ENERGIAREKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- Ez erabili telefona metalezko egituretatik gertu (esaterako, eraikin baten altzairuzko egitura).
- Ez erabili zure telefona iturri elektromagnetiko bizietatik gertu, besteak beste, mikrouhin-labeak, bozgorailuak, TB edo irratia.
- Fabrikatzaileak onartutako jatorrizko osagarriak edo metalik ez dutenak bakarrik erabili.
- Fabrikatzaileak onartu ez dituen eta jatorrizkoak ez diren osagarriak erabiltzeagatik, baliteke tokiko irrati-maiztasunen energia-esposizioari buruzko direktibak ez betetzea, eta, beraz, ez da halakorik erabili behar.

EKIPAMENDU MEDIKOEN FUNTZIOEKIN GERTATUTAKO INTERFERENTZIAK

Produktu honek kalte egin diezaioke ekipamendu medikoen funtzionamenduari. Ospitale eta klinika mediko gehienetan, debekatuta dago gailu hau erabiltzea.

Bestelako gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan horren fabrikatzailearekin, kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturriekiko ongi babestuta dauden jakiteko. Baliteke zure sendagileak informazio hori eskuratzen laguntzea.

ITZALI telefonoa berehala instalazio medikoetan, gune horietako arauak hala adierazten dutenean. Ospitaleek edo instalazioek kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturriekiko sentikorra den ekipamendua erabiltzen dute batzuetan.

AUDIOFONOAK

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Interferentziarik gertatzen bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo deitu bezeroen arretarako zerbitzu-lineara, bestelako aukerak bilatzeko.

ERRADIAZIO EZ-IONIZATZAILEA

Telefonoak barne-antena du. Produktu hau gomendatutako funtzionamendu arruntaren arabera erabili behar da, erradiazioen errendimendua eta interferentziaren segurtasuna bermatzeko. Irrati-uhinen transmisio mugikorrerako beste ekipo batzuekin gertatzen den moduan, ez egon antenatik gertu ekipoa funtzionatzen ari dela, ekipoak ongi funtziona dezan eta pertsonen segurtasuna berma dadin.

Erabili bakarrik telefonoarekin emandako antena. Baimendu gabeko edo aldatutako antenak erabiltzeak murriztu egin dezake deiaren kalitatea eta telefonoa hondatu, errendimendua gutxitu eta gomendatutako SAR mugak gainditu. Horrez gain, herrialdeko tokiko arauak ez betetzea ere ekar dezake horrek.

Zure telefono mugikorrek errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, erabili beti gailua dagokion posizioan. Antena ukitzeak murriztu egin dezake deiaren kalitatea, eta gailua behar baino energia gehiago erabiliz funtzionatzen aritzea eragin dezake. Telefonoa ERABILTZEN ari zarela antena ukitzen ez baduzu, antenaren funtzionamendua eta bateriaren iraupena optimizatzen dira.



Antenaren kokapena

Neurri orokorrak

- **Ez eragin presio handiegirik gailuari**
Ez egin presio handiegirik pantailari edo gailuari, kaltetu ez daitezten. Esertzera zoazenean, atera gailua galtzetako poltsikoetatik. Gailua babes-kutxan gordetzea gomendatzen da, eta arkatza edo behatza ukipen-pantailarako soilik erabiltzea. Erabilera desegokiagatik kaltetutako pantailek ez dute inongo bermerik.
- **Gailua berotu egiten da denbora luzez erabiliz gero**
Gailua denbora luzez erabiliz gero (telefonoz hitz egiteko, bateria kargatzeko edo sarea arakatzeko), berotu egin liteke. Hori normala da gehienetan, eta, beraz, ez da gailuaren akatsa.
- **Errepara iezaiezu konponketa-markei**
Operazioari edo zerbitzuari buruzko dokumentazioko beste atal batean azaltzen denean izan ezik, ez zaitetz saiatu produktua konpontzen. Gailuaren barneko osagaiak baimendutako teknikariak edo hornitzaileak konpondu behar ditu.

- **Konpondu beharreko kalteak**

Produktuaren entxufea kendu eta eska iezaiozu baimendutako teknikariari edo hornitzaileari konpontzeko, hauetakoren bat gertatzen denean:

- Produktuaren barrura likidoa isuri edo objekturen bat erori da.
- Produktua euritan edo uretan egon da.
- Produktua erori edo hondatu egin da.
- Gehiegi berotu denaren itxura du.
- Funtzionamendu-argibideei jarraituta produktua ez dabil behar bezala.

- **Saihestu leku beroak**

Produktua bero-iturrietatik urruti egon behar da: erradiadoreak, bero-erregistratzaileak, berogailuak eta beroa sortzen duten bestelako gailuak (anplifikadoreak barne).

- **Saihestu leku hezeak**

Ez erabili inoiz produktua leku hezeetan.

- **Ez erabili gailua tenperatura-aldaketa bortitza gertatu ondoren**

Zure gailuak tenperatura-aldaketa handiak eta/edo hezetasuna jasan behar badu, lurruna sor daiteke gailuan edo horren barruan. Gailuak kalterik izan ez dezan, erabili aurretik hezetasuna lurruntzeko behar den denbora utzi.

OHARRA: Gailua tenperatura baxua duen lekutik altuagoa duen lekura mugitzean, edo tenperatura altuko inguruntetik hotzagora eramatean, utzi gailua tenperatura berrira egokitzen piztu aurretik.

- **Ez sartu objekturik produktuan**

Ez sartu objekturik produktuaren karkasaren zirrikituen edo bestelako irekiduren barruan. Zirrikitu eta irekiduren bidez, aireztatu egiten da unitatea. Ez estali edo oztopatu unitatea hozten duten sargune horiek.

- **Muntatzeko osagarriak**

Ez erabili produktua mahai, orga, apal, tripode edo euskarri ezegonkor batean. Produktua muntatzeko fabrikatzailearen argibideei jarraitu eta fabrikatzaileak gomendatutako muntaia-osagarria erabili beharko litzateke.

- **Ez muntatu toki ezegonkorretan**

Ez jarri produktua oinarri ezegonkor batean.

- **Onartutako ekipoarekin erabili produktua**

Produktua ordenagailu pertsonalekin eta ekipoarekin erabiltzeko egokitzat onartutako aukerako gailuekin bakarrik erabil daiteke.

- **Doitu bolumena**

Jaitsi bolumena entzungailuak edo beste audio-gailu bat erabili aurretik.

- **Garbiketa**

Garbitu behar duzunean, deskonektatu produktua korronte-hartunetik. Ez erabil garbigarri likidorik ez aerosolik. Erabili zapi heze bat, INOIZ EZ erabili urik LCD pantaila garbitzeko.

Entitate arautzailearen identifikazioak

Arauk identifikatzeko, **BB81100** modelo-zenbakia du produktu honek.

Gailuak modu fidagarri eta seguruan funtziona dezan bermatzeko, erabili soilik zerranda honetan agertzen diren osagarriak zure **BB81100**ekin.

BB81100 modelo-zenbakia du bateriak.

Oharra 2. klaseko elikadura-iturri batekin erabiltzeko da produktu hau; korronte zuzeneko 5 volteko sailkapena izan behar du, eta gehienez 1 A-ko elikadura-iturria.

Telekomunikazioen eta Interneten Elkarte (TIA)

Segurtasun-informazioa

Taupada-markagailua

Osasunerako Produktuen Fabrikatzaileen Elkarteak (Health Industry Manufacturers Association) gomendatzen du gutxienez 15 cm-ko tartea uztea haririk gabeko telefonoen eta taupada-markagailuen artean, interferentziak saihesteko. Aholku horrekin bat egiten dute ikerketa independenteek eta haririk gabeko teknologien gaineko ikerketek (Wireless Technology Research). Taupada-markagailua duten pertsonentzako oharrak:

- Taupada-markagailutik 15 cm-ra izan behar dute telefono mugikorra BETI, PIZTUTA badago.
- Ez eraman telefona bularraldeko sakeletan.
- Erabili taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarrian, interferentzien arriskua ahalik eta gehiena murrizteko. Interferentziaren bat gertatzen ari delako susmoa baduzu, ITZALI telefona berehala.

Audiofonoak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalet interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Interferentziarik gertatzen bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo deitu bezeroen arretarako zerbitzu-lineara, bestelako aukerak bilatzeko.

Beste gailu mediku batzuk

Bestelako gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan horren fabrikatzailearekin, kanpoko irratimaiztasunen energia-iturriekiko ongi babestuta daudena jakiteko. Baliteke zure sendagileak informazio hori eskuratzeko laguntzea.

ITZALI telefonoa berehala instalazio medikoetan, gune horietako arauak hala adierazten dutenean. Ospitaleek edo osasun-instalazioek kanpoko irratimaiztasunen energia-iturriekiko sentikorra den ekipamendua erabiltzen dute batzuetan.

WEEEren oharra

Ekipo Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Direktibak (WEEE) —2003ko otsailaren 13an sartu zen indarrean Europako lege gisa— aldaketa handia eragin zuen ekipo elektrikoaren bizitza amaierako tratamenduan.

Direktiba horren helburua WEEEren prebentzioa da, eta, gainera, hondakinen berrerabilpena, birziklatzea eta berreskuratzeko beste modu batzuk erabiltzea aintzat hartzen ditu ahalik eta gutxiena ezabatu behar izateko.



Produktuan edo haren kutxan WEEE logotipoa (ezkerrean ageri dena) agertzeak esan nahi du produktua ez dela bota behar etxeko gainerako zaborrekin batera. Zure ardura da ekipo elektriko eta elektroniko guztien hondakinak behar den tokian —hondakin arriskutsu horiek birziklatzeko bilgunean— uztea. Ekipo elektronikoak banaka biltzea eta ezabatzeke unean behar bezala berreskuratzea lagungarria da baliabide naturalak zaintzeko. Gainera, ekipo elektroniko eta elektrikoaren hondakinak behar bezala birziklatuz gero, gizakien osasuna eta ingurumenaren segurtasuna bermatzen dira. Hondakin elektrikoak eta elektronikoak botatzeari eta berreskuratzeari buruz eta biltzeko guneei buruz informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan udaleko arduradunekin, etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuarekin, ekipoa erosi zenuen dendarekin edo unitatearen fabrikatzailearekin.

RoHS betetzea

Produktu honek betetzen du 2002/95/EE direktiba, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 27sn onartua, eta haren zuzenketak; zenbait substantzia arriskutsu ekipo elektriko eta elektronikoetan (RoHS) erabiltzeko murrizketei buruzkoa da direktiba hori.



91H0xxxx-xxM Rev.A



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008